



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EUSKADIKO TURISMO ENPRESA ETA JARDUEREN ERREGISTROAREN INGURUKO DEKRETU-EGITASMOARI BURUZKO TXOSTENA

LEA/AVC espedientearen zbk: 316-NORM-2018

Aurkibidea:

I. Txostenaren xedea.....	1
II. Turismo-erregistroei buruzko arauak Euskadin	2
III. Dekretu-egitasmoa	3
IV. Azterketa, lehiaren ikuspegitik.....	4
V. Ondorioa	5

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea
Rafael Iturriaga Nieva, kontseilukidea
Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea
Maria Lourdes Muñoa Corral, idazkaria

1. Adierazitako horiekin osatu dela, Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean LEK) 2018ko otsailaren 15 eginiko bileran, txosten hau onartu du Euskadiko turismo- enpresa eta -jardueren erregistroaren inguruko dekretu-egitasmoari buruz.

I. Txostenaren xedea

2. 2018ko azaroaren 27an, Tramitagune aplikazioaren bitartez, Euskadiko turismo- enpresa eta -jardueren erregistroaren inguruko dekretu-egitasmoari buruzko txostena presta zezala eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saialak LEA/AVC-ari.



3. Txosten hau Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legeak (otsailaren 2ko 1/2012 Legea) erakunde honi esleitua dion eskumenaren bidetik dator -3.5 artikuluan («lehiari eragiten dioten araugintzako egitasmoei buruzko irizpena emango du, baina ez da loteslea izango») eta 3.3.e) artikuluan («merkatuetako lehia mantendu edo berriz ezartzeko proposamenak helaraztea herri-administrazioei»)-.

II. Turismo-erregistroei buruzko arauak Euskadin

4. Uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 24. artikulua arautua du EAEko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroa, izaera administratiboko erregistro publiko gisa sortu zena, Eusko Jaurlaritzan turismo-arloko eskumena duen sailari atxikia. Erregistroak helburua du EAEko turismo-enpresak eta haien establezimenduak, edo turismo-enpresa baten titular diren edo turismo-jarduera batean aritzen diren pertsona fisiko eta juridikoak inskribatuta edukitzea.

Artikulu horren arabera, erregistroan inskribatzea ez da eratzaila, baina inskribatzea ofizioz gertatuko da turismo-enpresak erantzukizunezko adierazpena edo dagokion komunikazioa aurkezteaz bat, bai eta, kasua hala bada, turismo-gidari izateko gaikuntza eskuratzeari bat.

Gainera, artikulu horrek honakoa dauka xedatuta dauka: Lege honen VI. tituluaren erregulatzen diren enpresa eta establezimenduek (“Turismo intereseko jarduerak egiten dituzten enpresak edo establezimenduek”) erregistroan inskribatzea eskatu ahal izango dute, erregelamenduz ezarritako moduan.

5. 72. artikulua (VI kapitulua) zehazten duenez: “*Turismo-intereseko jardueratzat hartzen dira Euskadiko turismoa dinamizatzen laguntzen duten eta turisten mugimendua eta egonaldiak laguntzen dituztenak*”.

Honako hauek sartzen dira turismo-intereseko jardueren barruan:

- a) Sukaldaritzako establezimenduak.
- b) Kultura-zerbitzuak ¿adibidez, hizkuntza-turismoa¿ ematen dituzten enpresak eta naturako kirol-jarduerak ¿hala nola turismo aktiboa eta abentura-turismoa¿ eskaintzen dituztenak.
- c) Kongresuei, konbentzioei eta sustagarriei lotutako zerbitzuak ematen dituzten enpresak eta horretarako instalazioak, hala nola erakustazokak.
- d) Ibilbide turistikoak egiten dituzten garraio-enpresak.
- e) Kultura-ondarea zabaltzen duten enpresak.
- f) Jolas-zentroak.
- g) Erregelamenduz zehaztutakoak.



III. Dekretu-egitasmoa

6. Dekretu-egitasmoak 4 kapitulu ditu (17 artikulutan banatuta), bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

7. 1. kapituluan (“Xedapen orokorrak”) zehazten dira dekretuaren xedea, erregistroaren helburua, izaera juridikoa eta ezaugarriak, adskripzioa eta kudeaketa deszentralizatua; halaber, erregistroaren arduradunari eta osaera eta egiturari buruzkoak ere bertan jasota daude.

6. artikulua araberan, erregistroaren egituraren honako, liburu, atal eta epigrafeak daude:

a) I. liburua. Turismo-enpresak.

-1. atala. Ostatu-establezimenduak.

1. epigrafea. Hotelak.
2. epigrafea. Ostatuak.
3. epigrafea. Apartamentu turistikoak.
4. epigrafea. Kanpinak.
5. epigrafea. Agroturismoak.
6. epigrafea. Landetxeak
7. epigrafea. Aterpetxeak.
8. epigrafea. Beste ostatu-establezimendu batzuk.

-2. atala. Etxebizitzetan ostatu hartzeko enpresak.

1. epigrafea. Erabilera turistikorako etxebizitzak.
2. epigrafea. Erabilera turistikorako etxebizitza partikularretako logelak.

-3. atala. Bitartekaritzako turismo-enpresak.

1. epigrafea. Bidaia-agentziak.
2. epigrafea. Beste bitartekaritza-enpresa batzuk.

b) II. liburua. Turismo-gidak

8. II. kapitulua turismo-enpresen inskripzioari buruzkoa da, eta bertan arautzen dira inskripzioen helburua eta edukia, inskripzioa egiteko bitartekoak, eta datuak zuzentzeko eta ezerezteko izapidea.



9. III. kapituluan, bestalde, turismo-gidarien inskripzioa azaltzen da, eta zehazten da zein kasutan egingo den inskripzioa ofizioz eta interesdunak eskatuta, baita inskripzioak zer eduki izango dituen eta erregistroan baja nola emango den ere.
10. IV. kapituluak erregistroaren ondorioak eta publikotasuna arautzen ditu, eta erregistroko inskripzioaren zenbakiaz eta erregistroko informazioa eskuratzeaz eta argitaratzeaz ere hitz egiten du.
11. Lehenengo xedapen gehigarrian, adierazten da sexu-aldagaia sartuko dela dekretu hau aplikatzearen ondorioz sortzen diren dokumentu guztietan, bat etorri beharrez emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legeriarekin; bigarren xedapen gehigarrian, berriz, arau berria indarrean sartu ostean gaur egun indarrean dagoen erregistroa zertan den azaltzen da; xedapen indargabetzaileak, bestalde, ezartzen du erregistroa erregulatzen zuen aurreko dekretua indarririk gabe geldituko dela (irailaren 2ko 199/2003 Dekretua, Euskadiko Turismo Enpresa eta Establezimenduen Erregistroa sortu zuena); azken xedapenetan lehenengoak, jarraian, turismo arloan eskumena duen sailaren titularrari baimena ematen dio erregistroaren egitura eta osaera aldatzeko; eta, azken xedapenetan bigarrenak, azkenik, dekretua indarrean noiz sartuko den adierazten du.

IV. Azterketa, lehiaren ikuspegitik

12. Dekretu-egitasmoaren prezeptuak aztertuta, ikusi dugu, orotara, bat datorrela Turismoa arautzeko uztailaren 28ko 13/2016 Legeak esandakoekin, eta ez duela inongo beste oztoporik jartzen turismo-jardueratan hasteko, esanda bezala, erregistroan inskribatzea **ez baita eratzaillea**. Eratzaillea ez dela legeak berak dio, bai eta egitasmoaren 15. artikulua ere:

15. artikulua.- Inskripzioaren ondorioak.

Erregistroan inskribatzea ez da eratzearen pareko, hortaz, adierazitako datuak publiko bihurtzea beste ondoriorik ez du izango.

13. Gainera, turismo-jardueretan hasteko beste oztoporik ez duela ekarriko nabarmen geratzen da, inskripzioak **ofizioz** egingo direlako. Hala diote hurrengo artikulua hauek:

8. artikulua.- Inskripzioak egiteko bitartekoak.

1.- Erregistroko inskripzioak ofizioz egingo dira, honako agiri hauek aurkezteaz edo diktatzeaz bat, kasuaren arabera: (...)



10. artikulua.- Inskripzioak ezereztea.

1.- Erregistroko inskripzioak ofizioz ezereztuko dira, honako agiri hauek aurkezteaz edo diktatzeaz bat, kasuaren arabera: (...)

11. artikulua.- Ofizioz inskribatzea.

Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan ofizioz inskribatuko dira turismo-gidariak, baldin eta Euskadiko kultur ondarearen elementu katalogatuen barruan jarduteko gaituta badaude Euskadiko turismo-administrazioaren eskutik.

Alabaina, Espainiako estatuko beste autonomia-erkidegoren batek edo Europar Batasuneko beste herrialderen batek emandako gaitasuna daukaten turismo-gidariak ez dira ofizioz inskribatuko; aldiz, **bakoitzak erabakiko du** erregistroan inskribatu bai ala ez, egitasmoaren 12. artikulua xedatuta daukanaren arabera.

12. Artikulua.- Inskripzioa interesdunak eskatuta.

1.- Erregistroan inskribatzeko eskaera egiteko aukera izango dute Espainiako Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan edo Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan onartuta edo gaituta dauden turismo-gidariak, horretarako adierazpen bat aurkeztuta.

14. Esandakoak esan, konturatu gara egitasmoak ez dituela aipatu ere egiten interes turistikoko enpresa eta establezimenduak, alegia, Legearen 24.2 artikulua arauk ezarritako eran erregistroak inskribatzeko eskaera egiteko eskubidea ematen dien horiek.

Dekretu hau legearen arau-garapena izango denez, erregistroan aurreikusita eduki behar luke liburu, atal edo epigraferen bat zehaztea inskripzioa egitea eskatu duten interes turistikoko enpresa eta establezimenduak inskribatzeko.

Dekretu berriak indargabetuko duen dekretuak berak ere (199/2003, irailak 2) aurreikusita zeuzkan hainbat atal enpresa horietako batzuk inskribatzeko:

4. Atala – Jatetxe edo kafetegi sailkapena daukaten errestaurazio-enpresak.

7. Atala – Tabernak edo kafeak, dantza-aretoak eta festa-aretoak, klubak eta antzekoak.

V. Ondorioa

15. LEA/AVC honek aldeko txostena eman dio, hortaz, Euskadiko turismo-enpresa eta -jardueren erregistroaren inguruko dekretu-egitasmoari (Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak prestatu du), ez dugulako sumatu inongo oztoporik jartzen duenik turismo-jardueretan hasteko -erregistroan inskribatzeak ez delako eratzaila eta inskripzioa ofizioz egingo delako (edo nork berak, hala nahi izanez gero, Espainiako estatuko beste autonomia-erkidegoren batek edo Europar



Batasuneko beste herrialderen batek emandako gaitasuna daukaten turismo-gidarien kasuan) - betiere, aintzat hartzekotan txosten honetako 14. atalean adierazi duguna.